

## FILM LABURREN ZIRKUITUA 09

Martxoaren 5etik apirilaren 8ra

### Kabia. 2007 (8')

**Eider Rodriguez, Nagore Arozena, Garazi Rodriguez, Egoitz Sanchez, Garazi Sanchez, Maialen Sukunza, Amaia Uribe**

**Biofilmografia:** Unibertsitateak jende asko ezagutzeko aukera ematen du, gehienak amets berdinekin eta horrek, batez ere gogoko proiektuak aurrera ateratzeko balio du.

Kabia aurrera atera genuenok zenbait laburmetrai gehiago egin genituen unibertsitatean: “Bunkerra”, “Olatuekin batera” eta “Ximurak” mikrodokumentala.

Taldearen azken proiektua “Kabia” izan zen. Bakardadearen perspektiba bat eskaintzen du: bakarrik ez sentitzeko asmoz, pertsona perfektuaren bilaketaz ari da.

Jendearen aurpegiak ere ikusi ahal izan genituen Zinebin, sentsazio ezin hobearekin geratuz.



**Sinopsia:** Bakarrik egon eta hutsune hori betetzen duen norbait bilatu. Pertsona asko ezagutu baina ez zuk nahi duzuna. Behin eta berriz saiatu emaitzarik gabe. Bakardadea gero eta handiago da, perfekzioa lortzeko ezintasuna bezala. Baina hainbeste bilatu ondoren, perfekzioa existitzen ez baldin bada?



**Hizkuntza:** Euskaraz

## FILM LABURREN ZIRKUITUA 09

Martxoaren 5etik apirilaren 8ra

### Lo bakarrik. 2008 (14')

Iban del Campo Uribarrena

**Biografia:** Arrasate, 1971. Kazetaritzan lizentziatua (EHU). 2001ean Sormenezko Dokumentalean Masterra egin zuen Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatean. 2008tik Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultatean Ikus-entzunezko irakaslea da. Harkaitz Canorekin Limbusfilmak ekoiztetxea martxan jarri berri du.

#### Filmografia:

##### Dokumentalak


- “The gas man” 28’ (2001)
- “Un tal Eusebi” 27’ (2003)
- “Gezurren labirintua” 25’ (2004)
- “Mañana, la vida será mejor que hoy?” 2’ (2008)
- “Un tal Eusebi” 15’ (2009)
- “Dirty Martini” 25’ (2009)

##### Fikzioa

- “El viaje de Elsa” 9’ (2007)
- “Lo bakarrik” 14’ (2008)



**Sinopsia:** Bakarrik lo egitearen eta lo bakarrik egitearen artean, badago aldea. Insomnioak jotako emakume honek dena probatu du, eta hala ere ezin. Ezagutzen du inork lokartzeko moduren bat, hutsik egiten ez duena? Laburmetrai honetako protagonista prest dago edozertarako.



**Hizkuntza:** Euskaraz

## FILM LABURREN ZIRKUITUA 09

Martxoaren 5etik apirilaren 8ra

### Musika. 2007 (4')

Asier Urbietta San Martin

**Biografia:** 1979an Oreretan jaio zen. Zuzendari laguntzaile bezala lan egiten du publizitate eta zinean, telebistan tarteka gidoiak idazten dituelarik. Laburmetraiekin nazioarteko festibaletan saritua eta aukeratua izan da, besteak beste: Islandia, Alemania, Hungria, Frantzia, Italia, Grezia, Kolonbia, Argentina, Bolibia, Txile, Estatu Batuak...



#### Filmografia:

- “Larzabal” (2003)
- “Arco Iris” (2005)
- “Musika” (2007)
- “Pim Pam Pum” (2008)

**Sinopsia:** Haur batek errespetua zer den ikasiko du, miresmenaren bitartez.



**Hizkuntza:** Mutua

## FILM LABURREN ZIRKUITUA 09

Martxoaren 5etik apirilaren 8ra

### Berde. 2007 (8'40'')

Jose Luis Barredo, Iñigo Garcia

**Biofilmografia:** Jose Luis Barredo eta Iñigo Garciak zineagatik duten afizioa konpartitu eta hainbat proiektu gauzatu dituzte gaur egun arte:

“La caja de la persiana” (2003)

“4” (2004)

“Aulkien jokoa” (2004)

“Berde” (2007)

“Andarika, kilker, eta emakumeei buruzko gogoetak” (2008)

“Putz” (2008)



“Berde” laburmetraia Bilboko Zorrozaurre auzoan grabatua izan zen 2006ko Abenduan. Muntaketa 2008ko Martxo aldera bukatu eta ordutik hainbat laburmetrai jaialditan parte hartzeko aukeratua izan da sariren bat ere irabazi duelarik. Ondorengo jaialdietan ikusi ahal izan da besteak beste: Almeria en Corto, Radiocity Valencia, Zinebi, Eibarko laburmetrai jaialdia, Amurrio Begibistan, Lekeitiko Euskal Zine eta Bideo Bileran eta Fotogramas aldizkariko laburmetrai lehiaketan.

**Sinopsia:** Bikote bat lagun afari batera doa kotxean.



**Hizkuntza:** Euskaraz

## FILM LABURREN ZIRKUITUA 09

Martxoaren 5etik apirilaren 8ra

### Egiatik gezurrezko bizitzara. 2008 (3'57'')

Ostegunean afaria zure kontu taldea:

**Ander Odriozola, Iñaki Andonegi eta German Rubio**

**Biografia:** Iñakik eta Anderrek, Bilboko San Frantzisko auzoko telebista pirata baten ezagutu zuten elkar, AmatauTB-n. Sasoi bertsuan German Rubiok Workoholics proiektua ipini zuen martxan. Gaur egun, Anderrek bere kabuz egiten du lan, Iñakik Hamaika Telebistan eta Germanek Workoholics-en jarraitzen du.

Lan desberdinetan elkarrekin aritu ondoren, berehala sortu zen elkar ulertze mailaren adibidea, 2008ko Kameratoian, hirurak, ezertxo ere eztabaidatu gabe idatzi, zuzendu eta ekoiztu zuten laburmetraia. "Egiatik gezurrezko bizitzara" lanak Kameratoia 08ko lehen saria irabazi zuen.



#### **Filmografia:**

Ander Odriozola Argoitia:

“Nunca Sabremos” Autatua. “XXI Premis Tirant. Valencia”. 07

“San Francisco Re-producido” Autatua. ”X. Festival Zemos98 Sevilla” 08

Iñaki Andonegi Rekarte:

“Or dago” Fikzioa Amateur 1º Saria. ZEBB 05

“Gominolas” Editore. CUATRO 07

German Rubio Marin

“Oihane” Fikzioa Amateur 2º Saria. ZEBB 01

“Mucho Viaje” Editore TVE 2004-06

**Sinopsia:** Gazte bat bere patuari azalpena aurkitu nahian dabil. Egia aurkitzeko loturak bilatu behar dira.

**Hizkuntza:** Euskaraz




## FILM LABURREN ZIRKUITUA 09

Martxoaren 5etik apirilaren 8ra

# Poema baten irakurketa Euskal Herrian. 2008 (12')

**IKB: Xabier Iñarrairaegi eta Karlos Eriz**



**Biografia:** Informazioa Komunikazioa Bideoz (IKB) Elorrion 1994an sortutako bideo produktora da. Xabier Iñarrairaegi eta Karlos Eriz gara produktora honen partaideak. Urte hauetan guztietan dokumentalak, erreportaiak eta publizitatea landu dugu gehienbat. Gure bezeroak enpresak, erakunde ofizialak, Udalak eta orohar, edozein eratako talde edo elkarteak dira.

### Filmografia:

- 1999 Korrika 10
- 2001 "Orbelaren soinua". (40'), Otxandioko elurtegiari buruzko dokumentala
- 2002 "Behar dugun berria", Berria egunkariaren aurkezpen kanpaina. (20")  
"Bidea" Juan Gorriti eskulturgilearen lanaren inguruko erreportaia
- 2003 "Egunkaria aurrera". Egunkariaren itxierari buruzko erreportaia (19')
- 2005 "Denbora ez da distantzia". Kreaio lana (6') Erramun Landa margolariaren eta Edorta Jimenez idazlearen erakusketa.  
"Bizkaiko Txakolingintza" Erreportaia (10')  
"Entzun egiten den ardoa" Kreaio lana (5')
- 2006 "Galeusca: gogo zubi. Dokumentala (26')
- 2007 "Heldu" erreportai-dokumentala. AEKren Korrika 15
- 2008 "Elorrio denon artean 2008-2018"
- 2009 AEKren Korrika 16 "Ongi etorri lagun" bideoklipa Jon Maiaren letra eta Betagarri taldearen musika eta kantaz

**Sinopsia:** "Ezer ez da aldatu. Gorputza mingarria da; jan egin behar du, lo egin behar du, arnasa hartu". Horrela hasten da Wislawa Symbroska idazle poloniarrek idatzitako poema, eta horrela hasten dira irakurtzen ere azken hamarkadetan torturak jasan duten hainbat euskal herritar. Torturaren Aurkako Taldeak ekoiztutako sormenezko lana da "poema baten irakurketa Euskal Herrian".



**Hizkuntza:** Euskaraz

# FILM LABURREN ZIRKUITUA 09

Martxoaren 5etik apirilaren 8ra

## P.D. Ondo ibili. 2008 (2'45'')

**PuntutapArte Produkzioak taldea: Yera Sánchez, Xabier Zapirain, Maite Leizaola, Iñaki Zapirain, Muxi Lopetegi eta Garazi Urdanpilleta**



**Biografia:** Puntutaparte produkzioak learen jatorria Daltoniko Anonimoak kolektiboan dago. Daltoniko Anonimoak 2002. urtean Ederretako fakultatean artutako ikasle-talde batek sortu zen, euren sormenari bidea emateko. Puntutaparte lehen lanak Daltoniko Anonimoak taldearen bidez aurkeztu zituzten eta izen berekin iritsi ziren lehen sariak.

Auñerago, Daltoniko Anonimoak kolektibok aurreratu zen film laburrak eta antzeko lanak egiten jarraitzeko: Puntutaparte Produkzioak.

Puntutaparte produkzioak taldeko kide guztiek ikus-entzunezko munduarekin lotura daukaten lanak dituzte, telebista, irakaskuntza, irratia eta beste hainbat arlo lantzen dute euren eguneroko jardunean. Film laburren eta antzeko ikus-entzunezko lanen ekoizpena aisialdiko eta sormen artistikoa asetzeko modu gisa hartzen du taldeak.

### Filmografia:

Titulurik gabea (2005). Akzesit saria, EHUko Ikus-entzunezko borroka.

Marra urdinen bitartez (2005). Euskara saria, Arrasateko Sexmetraia.

Titulurik gabea II (2005).

Titulurik gabea III (2006). 2. saria, Euskal Herriko II. Ikus-entzunezko Rallya

2,33€(2007). 15x15 Film Festivalen izendapena.

Intxortarat (2007)


Beste aldean (2008). Huhezinean izendapena.

Biontzat (2008). Euskara saria, Arrasateko Sexmetraia.

P.D. Ondo ibili (2008). 3. saria, Kameratoia.

**Sinopsia:** Leirek munduari bira eman nahi dio baina ezin du. Irudimena erabiliko du bisitatu nahi dituen hiriak Donostian bertan aurkitzen.

**Hizkuntza:** Euskaraz



## FILM LABURREN ZIRKUITUA 09

Martxoaren 5etik apirilaren 8ra

### Bankuaren lapurreta. 2008 (3'15'')

Iñigo Aranbarri, Olatz Arriola-Bengoa, Kimetz Blanco, Txaber Fernandez, Julene Larrañaga, Txaber Larreategi, Josu Martinez

**Biografia:** Ikus-entzunezko komunikazioko ikasle batzuek 2008an unibertsitatean burututako lana da hau. Honen ostean taldea desegin eta bakoitzak bere bidea hartu zuen: batzuk kazetari egin dira, besteak langabetu eta baten batek bankuak lapurtzen jarraitzen du.



*Heigh Ho...*

**Sinopsia:** Hiru mafiosok Bilboko banku bat lapurtu nahi dute eta horretarako plan "eraginkor" bat jartzen dute martxan.



**Hizkuntza:** Euskaraz